

# BALIOA

Gure aplikazioa ikasleei laguntzeko gailu berri eta zehatz bat delako bereizten da. Honen bidez ikasleen hezkuntza-maila hobetzen da eta hori horrela izanik, ikasle horien ikastetxearen kalitatea hobetuko da.

Aplikazioaren erabilera oso erraza izango da, edozeinek erabiltzeko modukoa. Norberaren e-mailarekin sartu behar da eta ikasleak bere kurtsoan zehar izango duen programazioa erraztu behar du, aplikazioak ikasleari dagozkion gaiak emateko. Norberak adieraziko du zein maila, arlo eta material behar duen eta dagokion irakaslearekin zuzeneko harremana mantenduko du online.

Eskaintzen ditugun zerbitzuen prezioak kuotetan bereiziko dira; hilabete bat, hiru edo kurtso osoa. Kuota hauek ordaindu eta gero, gu geuk pasahitza bat emango dugu eta erositako denbora pasatzean iraungi egingo da pasahitza. Zerbitzu honek kostu baxua dauka, AMPA-k zati bat ordainduko duelako.

